|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Diruz lagundutako ekintzan argitaratu eta herritarren eskura jarzen diren eskuorriak, iragarkiak, oharra eta abar gutxienez bi hizkuntza ofizialetan egongo dira, euskarari lehentasuna emanda.                                                                                                               | Los programas, anuncios, y avisos de las actividades objeto de la subvención que se publiquen y pongan a disposición de la ciudadanía se redactarán como mínimo en los dos idiomas oficiales, dando prioridad al euskera.                                                                                                                                                |
| b) Harremanak Administrazioarekin:                                                                                                                                                                                                                                                                            | b) Relación con la Administración:                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| Dirulaguntza eskatzeko tramitazioan idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz egiteko saiakera egiteko eskatuko zaie, betiere kontuan izanda apirilaren 7ko 2/2016 Legeak eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herritarrei administrazioan eskaerak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea aitortzen dietela. | En el momento de la tramitación de la solicitud de subvención se les solicitará que hagan el esfuerzo de mantener en euskera la relación oral y escrita con el Ayuntamiento, sin olvidar que la Ley 2/2016, de 7 de abril y la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, reconocen a la ciudadanía el derecho de comunicarse con la administración en los dos idiomas oficiales.  |
| <u>Ahozkoari dagokionez:</u>                                                                                                                                                                                                                                                                                  | <u>En lo que respecta a las comunicaciones orales:</u>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
| Euskaraz komunikatu nahi duten herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, herritarrekin egiten diren jardueretan, oro har, eta bereziki hurrekin egiten direnetan aritzen direnek bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko beharrezko gaitasuna izatea hobetsiko da.                                          | Con el fin de garantizar los derechos lingüísticos de las y los ciudadanos que quieran comunicarse en euskera, se priorizará que quienes participen en las actividades que se realicen con la ciudadanía en general, y en particular en las que se realicen con las niñas y niños, tengan capacidad lingüística necesaria para comunicarse en los dos idiomas oficiales. |
| Bozgorailuz egiten diren propaganda, abisuak, publizitatea eta abar bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda. Nolanahi ere, ekintzaren izaerak edo hartzaileen izaerak eskatzen duenean euskararen erabilera lehenetsiko da.                                    | La propaganda, avisos, publicidad etc. que se realicen por altavoces se harán en los dos idiomas oficiales, dando en ese caso prioridad al euskera. Cuando las características de la actividad o de las personas que participen en ella así lo requieran se priorizará el uso del euskera.                                                                               |
| Elkarteek antolatutako ekintza konkretuetan megafonia bidez emandako mezuek eta musika edo abestiek aurreko baldintza bera bete beharko dute.                                                                                                                                                                 | Los mensajes emitidos mediante megafonía durante los actos concretos, así como la música y canciones, deberán cumplir esa condición.                                                                                                                                                                                                                                     |



|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatzen denean eta hizlaria euskalduna ez bada, laguntzaile euskaldun bat jartzeko eskatuko da, euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzeko.</p>                                                                                                                                                                                                                                   | <p>Cuando se organice alguna conferencia o similar y la persona ponente no sepa euskera, se solicitará la presencia de una persona ayudante vascoparlante, al objeto de que se respeten los derechos de las personas que deseen utilizar el euskera.</p>                                                                                            |
| <p><b>HAMABOSGARRENA.- Emakume eta gizonen berdintasunaren arloko betebeharrak.</b></p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          | <p><b>DECIMOQUINTA.- Obligaciones en materia de igualdad de mujeres y hombres.</b></p>                                                                                                                                                                                                                                                              |
| <p>- 4/2005 Legean, otsailaren 18koan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoan, eta 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirakoan, ezarritako printzipioak eta betekizunak betetzea.</p>                                                                                                                                                                         | <p>- Cumplir los principios y obligaciones establecidos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, del Parlamento Vasco, para la Igualdad de Mujeres y Hombres; y en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.</p>                                                                                           |
| <p>- Dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, eta bi hizkuntza ofizialetan, ahoz zein idatziz, ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak erakusten duen irudirik ere. Halaber, balio hauek sustatu behar dira emakumeen irudiar dagokionez: berdintasuna, partaidetza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rolen eta -identitateen aniztasuna.</p> | <p>- Toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género.</p> |
| <p>Ahal den neurrian, diru-laguntzaren helburuak bete direla frogatzen duen memoriarekin batera, entitate onuradunak egindako zerbitzuaren azken onuradunen edo erabiltzaileen sexuaren arabeko banakapena aurkeztu beharko du.</p>                                                                                                                                                                                              | <p>En la medida de lo posible, junto con la memoria justificativa del cumplimiento de los fines de la subvención, la entidad beneficiaria deberá aportar desglosada por sexo de las personas beneficiarias o usuarias finales del servicio prestado.</p>                                                                                            |
| <p><b>HAMASEIGARRENA.- Dirulaguntzen ordainketa eta ordainketa aurreratuak.</b></p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              | <p><b>DECIMOSEXTA.- Abono de la subvención y pagos anticipados.</b></p>                                                                                                                                                                                                                                                                             |



|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1. Dirulaguntzaren ordainketa diru-laguntza hori lortzeko adierazi zen xedea bete dela aurrez egiaztatuta egingo da.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | 1. El abono de la subvención se realizará previa justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| 2. Aurrekoa horrela izanda ere, diruz lagundutako ekintzarengatik egiaztatzen bada, konturako ordainketak egin ahal izango dira. Konturako ordainketa horiek ordainketa zatikatuen bidez egin ahal izango dira, diruz lagundutako ekintzak gauzatzen diren erritmoaren arabera, eta aurkeztutako egiaztagiraren zenbateko baliokide bidez ordainduko dira. Oinarri espezifikoek zehaztuko dute noiz eskatu daitezkeen ordainketa horiek, data zehatzetan edo ekintzen gauzatzearen portzentaiaren arabera. | 2. No obstante lo anterior, cuando se justifique por razón de la acción subvencionada, podrán realizarse abonos a cuenta. Dichos abonos a cuenta podrán consistir en pagos fraccionados, que responderán al ritmo de ejecución de las acciones subvencionadas, abonándose por cuantía equivalente a la justificación presentada. Las bases específicas concretarán las fechas o porcentajes de ejecución en que se podrán solicitar los abonos. |
| 3. Ordainketa aurrerratuak egin ahal izango dira eta berekin ekarriko dute fondoak entregatzea justifikazioaren aurretik, dirulaguntzei atxikitako jarduerak burutzeko nahitaezko finantzaketa gisa. Oinarri zehatzetan xedatuko da portzentaia. Aldez aurreko ordainketak ezingo du emango den diru-laguntzaren %80 gainditu.                                                                                                                                                                             | 3. Se podrán realizar pagos anticipados que supondrán entregas de fondos con carácter previo a la justificación, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención. El porcentaje se determinará en las bases específicas. La entrega anticipada no podrá superar el 80% de la subvención que se vaya a otorgar.                                                                                  |
| Aurrekoaren kalterik gabe, salbuespenez eta oinarri espezifikoek debekatzen ez badute, dirulaguntzaren pertsona edo entitate onuradunak egoki justifikatutako eskaera egingo balu, organo eskudunak beste entrega baten aurreratzea erabaki dezake. Inoiz ezin izango da diru-laguntzaren kopuru osoa aurreratu.                                                                                                                                                                                           | Sin perjuicio de lo anterior, excepcionalmente y siempre que las bases específicas no establezcan lo contrario, tras la solicitud debidamente justificada de la entidad o persona beneficiaria de la subvención, el órgano competente podrá acordar el anticipo de otra entrega, sin que en ningún caso pueda anticiparse el importe total de la subvención.                                                                                    |
| 4. Dirulaguntzaren ordainketa ezingo da egin pertsona edo entitate onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean ez dituen artean edo itzulera bidez kotitasuneko ebazpenez zordun denean                                                                                                                                                                                                                                                                                               | 4. No podrá realizarse el pago de la subvención en tanto la entidad o persona beneficiaria no se halle al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad social o sea deudora por resolución de procedencia de reintegro.                                                                                                                                                                                 |



| <b>HAMAZAZPIGARRENA.- Dirulaguntzaren justifikazioa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    | <b>DECIMOSÉPTIMA- Justificación de la subvención.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1. Diruz lagundu den jarduera amaitutakoan, dirulaguntza lerro bakoitzean adierazitako epean, diruz lagundutako jardueri edo programei buruzko dokumentazio zuritzailea aurkeztu beharko da.                                                                                                                                                                                                | 1. Finalizada la actividad para la cual se otorgó la subvención deberán ser presentada, dentro del plazo establecido en cada una de las líneas de subvención, la documentación justificativa de la realización del programa o actividad subvencionada.                                                                                                                                                                                                                                                            |
| 2. Dirulaguntzen pertsona edo entitate onuradunak behartuta daude justifikatzera jasotako fondoak bideratu direla dirulaguntza oinarritu zuen xederako.                                                                                                                                                                                                                                     | 2. Las personas o entidades beneficiarias de las subvenciones estarán obligadas a justificar el destino de los fondos percibidos a la finalidad que sirvió de fundamento a la subvención.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
| Justifikazioa emateko epea dirulaguntza lerro bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztuko da.                                                                                                                                                                                                                                                                                              | El plazo de rendición de la misma vendrá determinado en las bases específicas de cada una de las líneas de subvención.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| Justifikazioa euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko da, ondorengo baldintzak betez:                                                                                                                                                                                                                                                                                        | La justificación deberá redactarse en euskera o en los dos idiomas oficiales, conforme a los siguientes requisitos:                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| a) Onuradunak gastu (BEZ barne) eta diru-sarrera guztien kontuak aurkeztu beharko ditu (urteko jarduerak egiteko dirulaguntzak badira) edo jarduera osoari edo programa zehatz bati dagozkionak (dirulaguntza bat jarduera edo programa zehatz bat egiteko ematen bada). Erakundeen kasuan, idatzi hori sinatuko du ahalmendua izan den pertsonak, izen-abizenak eta DNI zenbakia zehaztuz. | a) La beneficiaria deberá presentar las cuentas de la totalidad de sus gastos (IVA incluido) e ingresos (en el caso de subvenciones para la realización de la actividad anual) o los correspondientes a la totalidad de una actividad o programa específico (en el caso de que se conceda una subvención para la realización de una determinada actividad o programa). Dicho documento vendrá firmado, en el caso de las entidades, por la persona apoderada para ello, identificada con nombre, apellidos y DNI. |
| b) Erantsiko da Diruzainak emandako egiaztagir bat -bere izen-abizenak eta Nortasun Agiri zenbakia jaso- (edo, pertsona fisikoa bada, erantzukizunpeko deklarazioa) aurkeztu beharko du. Bertan diruz lagundutako proiektua, jarduera                                                                                                                                                       | b) Se adjuntará una certificación emitida por la Tesorera o Tesorero de la entidad (o declaración responsable, en el supuesto de persona física), haciendo constar una relación de todos los ingresos obtenidos para la                                                                                                                                                                                                                                                                                           |



|                                                                                                                                                                                                                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| edo programa finantzatzeko lortutako diru-sarrera guztien zerrenda jasoko da, bai entitate publikoetatik eta pribatuetatik datozenak, bai publikoak, oro har emandakoak edo bazkideek egindako ekarpenak.                                                                                | financiación del proyecto, actividad o programa subvencionado, tanto sean provenientes de entidades públicas como privadas, así como del público en general o de las aportaciones de sus socias/os.                                                                                                                     |
| c) Onuradunak kontu horietan erantsi beharko ditu faktura eta/edo ordainketa egiaztagiri guztiak (trafiko juridikoan baliozkoak) egin diren gastuak egiaztatzeko (originalak). Klausula honen 3. atalean zehazten dira dokumentu horien betebeharrak.                                    | c) La beneficiaria deberá adjuntar a las citadas cuentas, todas las facturas y/o documentos obtenidos de justificantes de pago (válidos en el tráfico jurídico) acreditativas de los gastos realizados (originales). En el punto 3 de esta cláusula se concretan los requisitos de dicha documentación.                 |
| d) Nolanahi ere, jarduera egin eta egiaztatzeko epea amaituta, egindako gastuen zati bat bakarrik ordaindu izan balitz, kobratzeko eskubidea galtzeko ondorioetarako, proportzionaltasunaren printzipioa aplikatuko litzateke, hamabigarren klausularen 1. puntuak xedatzen duen bezala. | d) En todo caso si, realizada la actividad y finalizado el plazo para justificar, se hubiera pagado sólo una parte de los gastos en que se hubiera incurrido, a efectos de pérdida del derecho al cobro, se aplicará el principio de proporcionalidad, tal y como establece la cláusula decimosegunda en su apartado 1. |
| 3.- Jasotako fondoak aplikatu direla justifikatzeko dokumentuen aurkeztea, oro har, modu honetan egingo da:                                                                                                                                                                              | 3. La justificación documental de la aplicación de los fondos recibidos se realizará, con carácter general, del siguiente modo:                                                                                                                                                                                         |
| a) Dirulaguntzaren xedea obra edo instalazio bat egitea bada, justifikazio dokumentuak gaitasuna duen teknikari baten ziurtagiriak izango dira. Udalak egindako obra edo instalazioen berri emango duen udal teknikari bat izendatu ahal izango du.                                      | a) Si el destino de la subvención es la realización de una obra o instalación, los documentos justificativos serán certificaciones de un o una Técnico competente. El Ayuntamiento podrá designar que un técnico municipal informe sobre las obras o instalaciones realizadas.                                          |
| b) Xedea material suntsigarria erostea bada, zerbitzuak ematea edo antzeko beste batzuk badira, justifikazio dokumentuak originalak edo fotokopia konpultsatuak ekartzea eskatuko da.                                                                                                    | b) Si el destino es la adquisición de material fungible, la prestación de servicios y otros de naturaleza semejante, se requerirá la aportación de documentos justificativos originales o fotocopias compulsadas.                                                                                                       |



|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| c) Pertsona fisikoei egiten zaizkien ordainketak, lan harremanik ez dagoen kasuetan, hurrengo moduetako batean egin beharko dira:                                                                                                                                                                                               | c) Los pagos realizados a personas físicas con las que no medie relación laboral deberán revestir alguna de las siguientes modalidades:                                                                                                                                                                                                                     |
| c.1) Dietak edo gastuen konpentsazio ekonomikoak (garraioa, otarrekoak, alojamendua, besteak): "jaso dut" agirien bidez egingo dira. Gastuen egiaztagiriak erantsiko dira.                                                                                                                                                      | c.1) Abono de dietas o compensación económica por gastos (transporte, comida, alojamiento u otros): se realizará mediante "recibí". Se adjuntará los documentos justificativos de los gastos.                                                                                                                                                               |
| c.2) Emandako zerbitzuengatik bestelako ordainketak: faktura edo balioa duten bestelako dokumentuekin egin beharko dira. Zerga atxikipena egingo da eta Foru Ogasunean sartu (190 agiria), pertsona fisiko bati egindako ordainketen batuketa 300 (hirurehun) euro edo handiagoa denean. Egiaztatu beharko da dirua sartu dela. | c.2) Otros abonos por la prestación de servicios: se realizarán contra factura o documento válido. Se realizará la correspondiente retención tributaria e ingreso en la Hacienda Foral (documento 190) siempre que la suma del importe de los abonos a una persona física sea igual o superior a 300 (trescientos) euros. Deberá acreditarse dicho ingreso. |
| d) Atxikipen eta diru-sartze hori egiaztatu beharko da, ere, emandako sariekiko, bere kopurua 300 (hirurehun) euro edo gehiagokoa denean.                                                                                                                                                                                       | d) Dicha retención e ingreso deberá acreditarse también respecto a los premios cuyo importe sea igual o superior a 300 (trescientos) euros.                                                                                                                                                                                                                 |
| e) Ordainketak banku transferentzia bidez egingo dira. Ezingo dira 2.500 (bi mila eta bostehun) euro edo gehiagoko ordainketak esku diruz egin (edo kopuru txikiagokoak, lege horrela xedatzen bada).                                                                                                                           | e) Todos los pagos deberán realizarse vía transferencia bancaria, sin que puedan realizarse pagos de importe igual o superior a 2.500 (dos mil quinientos) euros -o importe menor que se establezca legalmente- en metálico.                                                                                                                                |
| <b>HAMAZORTZIGARRENA.- Justifikazioa konprobatzea</b>                                                                                                                                                                                                                                                                           | <b>DECIMOCTAVA- Comprobación de la justificación</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| 1.- Udalak konprobatu ahalko du, egokitzen jotzen dituen baliabideen bidez, emandako diru kopuruak eman ziren xederako inbertitu zirela. Hala izan ezean, jasotako diru-kopuruak eta dagozkion berandutze-interesak itzuli egingo dira. Era berean, izan litezkeen erantzukizunak exijitu ahalko zaizkie.                       | 1.- El Ayuntamiento podrá comprobar, por los medios que considere oportunos, que las cantidades otorgadas se han invertido en la finalidad para la que se concedieron. En caso de incumplimiento procederá al reintegro de las cantidades percibidas y los intereses de demora que correspondan, así como a la exigencia de                                 |



|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          | posibles responsabilidades.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
| 2.- Departamentu bakoitzeko teknikariak konprobatuko du diru-laguntza egoki justifikatu dela, hala nola jarduera gauzatu dela eta diru-laguntza eman edo gozatzeko erabaki duen helburua bete dela. Horretarako dagokion txostena emango du, eta teknikari hori bera izango da berrikusketa bete ez izanaren arduraduna. | 2.- El o la Técnico del departamento correspondiente comprobará la adecuada justificación de la subvención, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención, a cuyo efecto emitirá el correspondiente informe, siendo ésta/e Técnico quien se responsabilice del incumplimiento de esta revisión. |
| 3.- Departamentu bakoitzeko zinegotzi arduradunak txostenari oniritzia eman beharko dio.                                                                                                                                                                                                                                 | 3.- La o el Concejal responsable del departamento correspondiente, deberá dar el visto bueno al citado informe.                                                                                                                                                                                                                                                                     |
| 4.- Txostena Kontularitza, Zerga Administrazio eta Ikuskaritza departamentura bidaliko da, Kontu-hartzaileak adostasuna eman dezan.                                                                                                                                                                                      | 4.- El informe se remitirá al departamento de Contabilidad, Administración e Inspección de Tributos, para que el o la Interventor dé su conformidad.                                                                                                                                                                                                                                |
| 5.- Dirulaguntza eman duen organoa beharturik egongo da urtero jarduketa plan bat egitera, era horretan konproba dadin onuradunek gauzatu dituztela diruz lagundutako jarduerak.                                                                                                                                         | 5.- El órgano concedente de la subvención tendrá la obligación de elaborar anualmente un plan anual de actuación para comprobar la realización por las personas beneficiarias de las actividades subvencionadas.                                                                                                                                                                    |
| <b>HEMERETZIGARRENA.- Araubide Juridikoa</b>                                                                                                                                                                                                                                                                             | <b>DECIMONOVENA.- Régimen Jurídico</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
| Dena den, dirulaguntza deialdi honen oinarrietan aurreikusirik gabeko guztian, ondorengo hauek ezarrikoia beteko da: Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, abenduaren 17koa, eta 887/2006 Errege Dekretua, eta hura garatzeko arautegia.            | En todo lo no previsto en las presentes bases generales de subvenciones, se estará a lo dispuesto en la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Errenteria, en la Ley 38/2003, de 17 de diciembre, General de Subvenciones, en el Real Decreto 887/2006 y demás normativa de desarrollo.                                               |